

Herri lurren aprobetxamentua Udal ordenantza berritzea

Prozesu parte hartzailea



Prozesua

Gure ordenantza 2011koa da, eta berrikuntza bat egitea premiazkoa ikusten da.

Saio irekiak egingo dira. 2 edo 3

Saio bakoitzean gai jakin batzuk landuko dira

Parte hartzea bermatzeko talde txikietan banatuko gara.

Batzarrak gehienez 2 ordukoak izango dira

Beharrezkoa da parte hartze prozesu ireki bat burutzea.

Ekarpenak egiteko epe bat irekiko da



Prozesua

Zertarako ordenantza?

- Herri lurren aprobetxamentua arautzeko.
- PACerako irizpideak finkatzeko
- Tasak zehazteko.
- Adostu ezkerro, auzolana kudeatzeko, herritarrak zuzenean herri lurren kudeaketan parte hartzeko,...

Zertarako EZ du balio ordenantzak?

- Dauden arazo guztiak konpontzeko.



Landuko diren gaiak

Herri lurretako Lan taldean egoki ikusi da Leitzan onartu berri duten ordenantza eredu gisa erabiltzea.

Ez du esan nahi kopiatu behar dugunik edo gai berriak sartu behar ez ditugunik.

Prozesuan aztertuko ditugu gai hauek eta egoki ikusten bada, gurean txertatuko dira.




Landuko diren gaiak

Gaurko saioan


- 1. Herritar bakar batek erabiltzeko lur eremu itxiak
- 2. Auzolanaren arautzea
- 3. Batzorde desberdinak

Hurrengo saioan

- 4. PACerako hektareak emateko irizpideak
- 5. Tasak
- 6. ...



1. Herritar bakar
batek erabiltzeko
lur eremu itxiak



1. Herritar
bakar batek
erabiltzeko
lur eremu
itxiak

Goizuetan ez dago
arautua.

Errealitatean existitzen dira
eremu hauek.

Iralekun hitzarmenaren
ondorioz gehiago izan
daitezke.

1. Herritar bakar batek erabiltzeko lur eremu itxiak

Leitzako eredu:

Gutxienez 2 UGM behar dira

15 urteko kontzesioa egiten da.

Erabilera zuzena egin behar da.

Itxi daiteke.
Udalak markatzen du terrena. Itxitura gastuak partikularrak asumitzen ditu.

Terrenoak beti komunala izaten jarraitzen du.

Udalak terreno hau beharko balu, eskuratu dezake.

Urteko tasa: 67 €/Ha;
ATP: 33,5 €/Ha

1. Herritar bakar batek erabiltzeko lur eremu itxiak

1. aukera:
dagoen bezala utzi.
Ez arautu.

Errealitatean badaudela onartuta ez litzake oso juxtua herritar hauek duten abantaila ez arautzea.

2. aukera:
Gaur egun daudenak arautu, eta berriak egiten ez utzi.

Daudenak identifikatu, berriak egitea debekatu, eta daudenak kentzen badira, eskubiderik ez eman berriz ixteko.

3. aukera:
Gaur egun daudenak arautu, eta berriak egiteko aukera baldintzatua eskaini.

Balitzko baldintzak:

- Kokapena. Non egin eta non ez.
- Gehienezko azalera zehaztu.
- Nork egin dezake eta nork ez.
- Eremu kopuru maximo bat ezarri.
- ...

2. Auzolana arautu





2. Auzolana arautu

Goizuetan auzolana ez dago arautua.

Auzolana egiten da, erreketak, bide bazterrak garbitu, arbolak kimatu, desbrozeak,...

2. Auzolana arautu

Leitzako eredua:

Auzolana edo herri lurrak aprobetxatzearen ordaina.

Norberak duen UGM kopurua eta udalak PACerako emandako hektarea kopuruaren baitan auzolan egun jakin batzuk ezartzen dira.

Auzolana egiteko bakoitzak bere tresneria eramatea aintzat hartzen da.

Lanak: erreketak, bideak garbitu, azpiegiturak moldatu, auzolana antolatu,...

Ezin da bakarrik egin.

Auzolanak antolatu eta kontrolatu batzordeak egiten ditu

Egiten ez bada, 90€ ko multa eta hurrengo urtean Ha bat gutxiago, egin ez den auzolan egun bakoitzeko.

2. Auzolana arautu

Leitzako eredu:

Auzolan egunak zehaztu	
10 UGM	Egun 1
PACerako emandako 5Hako	Egun 1
Parekotasunak	
Traktorearekin desbrozatu	5 egun
Norberaren makineria, lanak egiteko	4 egun
erreketak	2 egun
Norberaen desbrozadorekin lana	2 egun
Auzolana antolatzea	Egun 1

2. Auzolana arautu

1. aukera:
Dagoen bezala utzi.

Auzolanak bakoitzak nahi duenean egin inolako kontrolik gabe.

2. aukera:
Arautu gabe utzi,

...baina norberak egiten duen auzolana egiterakoan, udalak duen segurua egiteko aukera eskaini.

3. aukera:
Leitzak daukan antzeko eredu bat ezarri auzolana arautzeko.

- Goizuetako kasuan, Leitzako eredu jarraitu ezkeror, **urtean 438 auzolan egun** egin beharko lirateke denon artean.
- Mendiaren egoera dezente hobetzeko aukera.
- Norberak dagokiona egin beharko luke.
- **Udalak EZ du auzolana kudeatuko.**
- Kudeaketa hau mendiko batzordeen esku geratuko litzake.
- Udalak aseguru bideratuko eta koordinazio batzordean parte hartuko luke.

3. Mendietako batzordeak





3.
Mendietako
batzordeak

Goizuetan ez dago
mendietako
batzorderik.

Leitzan larre
bakoitzeko
batzordeak daude. 5
guztira.

3. Mendietako batzordeak

Leitzako eredua: Batzordeen funtzioak

Auzolanak proposatu,
antolatu eta
kontrolatu.

Egindako auzolanaren
berri udalari eman

Larre hortako Azindan
manejua arautu.

Egin beharreko
inbertsioak eta
hobekuntzak
proposatu.

Koordinazio
batzordean parte
hartu.

Udalari bere
osaketaren berri
eman.



3. Mendietako batzordeak

Koordinazio batzorde bat dago.

Osaketa:

Larre bakoitzeko ordezkari 1 eta udal ordezkariak osatzen dute.

3. Mendietako batzordeak

Leitzako eredu: Kooordinazio Batzordearen funtzioak

Larreen urteko
plangintza prestatu

Erreketen
plangintza egin

Hobekuntzak
proposatu

Ur hornidurak, eta
azpiegiturak
hobetzeko
proposamenak
egin

Auzolanak orekatu

Auzo batetik
bestera herritarrak
bideratu jende
kopurua
orekatzeko.

3. Mendietako batzordeak

1. aukera:

Batzorderik ez sortu,
orain arte bezala
jarraitu.

- Udalak orain arte bezala ahal duena egiten jarraituko du, dituen baliabideekin.
- Auzolana arautzea ezinezkoa izango litzake.

2. aukera:

Batzordeak sortu.

• Auzo bakoitzean 2 edo 3 kidez osatutako batzordeak osatu.

Leitzako larretako batzordeak dituzten antzeko funtzioekin. Erabaki beharra: batzorde kopurua.

• Koordinazio batzordea osatu.

Batzorde bakoitzeko kide 1 eta udal ordezkaria. Leitzako koordinazio batzordeak dituen antzeko funtzioekin.